



Lana / La obra

Liburu honetan oroimenen eraikuntzari ekiten dio Canetik, gaztaro baten kontakizuna egiten digu. Idazlearen zahartzaroko literatura ekimen nagusiaren lehen atala da, eta bertan hamasei urte bete zituen artekoak hartzen ditu hizpide. 65 urte zituenean ekin zion idazketari. XX. mendeko autobiografia interesgarrienetako bat dela esan izan da, haurtzaro eta nerabezaro europar baten lekukotza. Gottfried Keller saria jaso zuen lanak.

Bost atal ditu liburuak, hiri eta egoitza nagusiak ardatz hartuta. Gurasoak eta familiako beste hainbat kide hartzen ditu hasieran Canetik hizpide pasadizoetan oinarritutako eta xehetasunez betetako testu batean (xehetasunei euren duintasuna itzultzea, hori izan zen agian bere lorpen nagusia). Gainera, lehen irakurketak, ikaskideak, maisuak eta lehen literatur erreferentziak azaltzen dizkigu Canetik.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Mihia aske**
Egilea / Autor: **Elias Canetti**
Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 160
ISBN / EAN: 978-84-9746-815-2
Salneurria / Precio: 19 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / N° páginas: 432
Formatua / Formato: 130 x 195 cm

ISBN: 978-84-9746-815-2



9 788497 468152

Egilea / El autor

Elias Canetti (Rustschuk, 1905 – Zürich, 1994). Idazle sefardi poliglota izan zen eta hainbat herrialdetan bizi izan zen. Alemanez idatzitako obra askotarikoa utzi zigun. Nobel saria lortu zuen idatzi zuen eleberri bakarrari esker: Die Blendung. Horrez gain, ordea, saio nagusi bat eta beste hainbat saio labur idatzi zituen, hiru antzerki-lan, aforismo bildumak, bidaia-liburu bat, eta lan autobiografiko zabala. Hizkuntzaren eta boterearen arteko loturak, batetik, eta heriotza, bestetik, izan ziren sarri hizpide hartu zituen kontu nagusietako batzuk.

Itzultzailea / Traductor

Ibon Uribarri Zenekorta irakaslea eta ikertzailea da EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioko arloan. Zenbait ikerketa proiektu eta tesi zuzendu ditu itzulpengintzaren arloan; gainera, publikazio akademikoak idatzi ditu eta hitzaldi ugari eman ditu arlo horretan. Itzultzaile lanetan zenbait filosofia eta literatur testu kanoniko euskaratu ditu.

